

Maria Larrazaren tesiaren irakurketa.

2015/02/05

Maria Larraza doktoregaiak bere doktore tesia aurkeztu du honako tituluarekin "Antolaketa berrikuntzaren prozesua. Kasu praktiko bati hurbilketa oinarritutako teoriaren bitartez.

Tesiaren zuzendaria Alazne Mujika Alberdi izan da eta zuzendarikidea Saioa Arando Lasagabaster. Maria Larrazak Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu du.

Antolaketa berrikuntzaren ikerketak bere jatorria XX. mendearen lehen erdialdean du. Dena den, duela gutxi arte ez du enpresa kudeatzaileen, arduradun publikoen eta akademikoen arreta lortu lehiakortasunerako eragile gisa. Testuinguru honetan, antolaketa berrikuntzari lotu ohi zaion anbiguotasun kontzeptualari aurre egin eta erakundeetan nola garatzen den ulertzea egungo interesgune bihurtu da. Horretarako, ikerketa honek oinarritutako teoriara jo du ikerketa metodo gisa, kasu azterketa batean aplikatutako eta indukziozko logikan oinarritutako luzetarako diseinu esploratzaile batez baliatuz. Oinarritutako teoria erabiltzeak ez du soilik antolaketa berrikuntza prozesua ulertzearen helburua lortu, baita gaiari buruzko ezagutza teorikoak sortzea ere. Horrez gain, ikerketa hau Euskal Autonomia Erkidegoan txertatzen dela jakinik, bertan eta antzeko ezaugarriak dituzten lurraldeetan berrikuntzaren eta lehiakortasunaren garapena erreztu dezaketen praktikak proposatzea ere bideratu du metodo honen erabilerak. Ikerketaren emaitzen artean nabarmentzekoak dira honakoak: Damanpour eta Wischnevskyren (2006) berrikuntzaren sortze eta adopzio prozesuen teoria antolaketa berrikuntzan erabilgarria dela enpirikoki berretsi izana, eta Birkinshaw, Hamel eta Molek (2008) proposatutako antolaketa berrikuntzaren sortze prozesuaren eredia enpirikoki garatu izana. Era berean, emaitzak berrikuntza eta antolaketa adituekin kontrastatzeak enpresa kudeatzaile eta arduradun publikoei zuzendutako ekarpen praktikoak egitea ahalbidetu du. Oro har, ekarpen hauek antolaketa berrikuntza ikusgai egitera eta bere sortze eta sustapenean eragile anitz kontutan hartzera bideratuta daude. Azkenik, etorkizuneko ikerketa lerroen proposamenean baitan, antolaketa berrikuntzarako adostasuneko definizio baten beharra baieztatu da, ikerketa honetan erreferentzia gisa erabili den Osloko Eskuliburuaren (ELGE eta Eurostat, 2005) kontzeptualizazioa garatua izan dadin.

